



joseba intxausti

Gipuzkoako Seguran etorri zen mundura ,1936-ko uztailaren 20-an. Frantziskotar apaizgoa bukatuta Barcelona-n ari da Filosofia eta Letrak estudiatzen. Denbora batean, Arantzazun egoalarik, Jakin-en zuzendarietako bat izan zen. Euskal-aditza, 1960, eta Las siete lecciones del Euskal-aditza, 1965, liburuen egilea da. Hizlaur asko idatzi du baina ez hainbeste bertsoz. Hala ere, 1965-ean Santiago de Compostela-n euskal unibersitarioentzat egin zan poesi sariketan lehendabiziko atera zuen.

Bakarrik.
Egunsentiak
bakarrik
argitu,
argitu nau gela bakarrean.
Argi ta gerizpetan bakardadea baitut ohantze.

I. — METROAN

«Metro»-rako ba ginen hogei,
ehun, berrehun...;
guziokin
sartu naiz barnera,
batera,
bakarrik:
ausaz ez ninduten bidelagun...

Berriz ere bakardadea zen,
zijoen,
nerekin presente.

Ba dire gizon eta andere,
gazte-algara
ta esku-emate.
Ikusi naute
ta ikusmiratu,
ta, lehen bezela,

bakardade!
Bakardade-lurpe!
Ez bainaiz gizarteko seme!

Begiratu dut:
ez dut begirik idoro,
igesi nigandik oro,
ta nereak —gajoak!—
guzienganaino, bilaka,
zoro.

Inguruan,
trinko,
giza-sorbaldan hesi,
ta, harrigarri!,
neretzat ez zuen
nehork
belarri,
ez aurpegi.
Ez bainintzen gizartean seme.

II. — TRANBIAN

Tranbiak, gure huritik,
gizadiz, eder eta opare!,
hantxe baikera, orpoz-orpo,
elkarren burrukari ta burkide,

bizitza hertsian,
arerio ta adiskide.
...gaur, ordea, ba zuen aulkirik,
ta, hain zuzen, ondoan bat hutsik.

Ez alferrik!
Bainan
gaur,
hemen,
atzo,
bihar
eta betiko
aulkia
beti hutsik.
Eta
ni,
amai
gabe,
behingoz
nere buruaren errotari.

Gizartean ez naute seme.
Guziek zuten mintza-lagunik,
ta zenbaitek maitalerik.
...orok begiratu didate,
kupitu,
ta isilpean mintza zaizkit:

—«Gazte,
gizarajo
ta fraide!»

Ni,
jaistean,
bakarrik.